Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Sin./Fdo.: FEDERICO HIGON GARCIA - 2026-11-24
Arduradunaren absentziagatik / Por ausencia de responsable:
EUSKARA ZERBITZUA
SERVICIO DE EUSKERA

Sin./Fdo.: ISAAC AMEZAGA LARRAZABAL - 2026-11-24
EUSKARA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE EUSKERA

Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2026-11-24
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

Akordioa/Acuerdo: OF 02869/2026 - Data/Fecha: 2026-11-24
Sin./Fdo.: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-11-24

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren FORU AGINDUA, zeinaren bidez dirulaguntza zuzen bat ematen zaion LABAYRU FUNDAZIOA–FUNDACIÓN LABAYRU entitateari, 2026. urtean «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» izeneko proiektua partez finantzatzeko.

ORDEN FORAL de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, de concesión de subvención foral directa a LABAYRU FUNDAZIOA–FUNDACIÓN LABAYRU, para la financiación parcial del proyecto «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» en el año 2026.

Gure Lurralde Historikoko eremuan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren eskumenen artean, besteak beste, euskara bultzatzea dago.

En el ámbito de nuestro Territorio Histórico, entre las competencias del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figura la promoción del euskera.

LABAYRU FUNDAZIOA-FUNDACIÓN LABAYRU erakundeak Bizkaiko euskara lantzen eta zabaltzen dihardu sortu zenetik, eta bere estatutuetan lehentasunezko helburutzat jasotzen du euskal kulturaren balioak garatzeko eta eguneratzeko lan eta zerbitzuak sustatzea.

LABAYRU FUNDAZIOA-FUNDACIÓN LABAYRU ha desarrollado desde su creación una destacada labor en el campo del euskera de Bizkaia y contempla en sus estatutos como finalidad primordial la promoción de obras y servicios a favor del desarrollo y actualización de los valores de la cultura vasca.

«Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» proiektuaren bidez, etorkinen integrazioa erraztu nahi da, euskal hizkuntzaren eta kulturaren bitartez. Berariaz, euskal kulturaren oinarrizko ezagutza eskainiko duten 10 unitate didaktiko egin nahi dira, integrazioa, kohesioa eta kulturartekotasuna sustatuko dituen baliabide pedagogiko gisa erabil daitekeena, eta, besteak beste, udaletako harrera-leku eta programetan, gizarte-erakundeetan edo ikastetxeetan erabil daitekeena.

A través del proyecto «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» se pretende facilitar la integración de las personas inmigrantes a través de la lengua y cultura vascas. De forma específica, se pretenden elaborar 10 unidades didácticas que ofrezcan un conocimiento elemental de la cultura vasca, utilizable como recurso pedagógico que fomente la integración, la cohesión y la interculturalidad, y que pueda usarse en centros y programas de acogida municipal, instituciones sociales, o centros educativos, entre otros.

Bada, helburu orokor hori funtsezko legez agertzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren euskara sustatzeko jarduketa-planaren barruan.

Este fin general se considera fundamental por la Dirección General de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia dentro de su plan de actuación para la promoción de la lengua.

Eremu horretan sartzen da, hortaz, foru-erakunde honek 2026. urtean «Euskal kultura

En ese marco, por tanto, se sitúa el apoyo económico de esta institución foral a la financiación parcial del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kulturartekotasun testuinguruan» proiektua partez finantzatzeko dirulaguntza hau.

2026. urterako proiektuaren garapenerako azaldutako ekintzen aurrekontua, zehazki, LAUROGEITA LAU MILA ETA BOSTEHUN EUROkoa (84.500,00 €) da.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluaren arabera, salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuengatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak zuzenean emateko aukera egongo da.

Aipatutako artikuluan eskatzen dena betetzeko, honako hau 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluak justifikatzen du dirulaguntzen bide hau, eta adierazi behar da proiektu honen azpian dagoen interes publikoa, zalantzarik gabe.

LABAYRU FUNDAZIOA-FUNDACIÓN LABAYRU entitateari zuzeneko dirulaguntza ematea ezin hobeto sartzen da maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, proiektua berezia eta salbuespenezkoa da, eta sail honek kudeatzen dituen ohiko deialdietako batean sartzeak bere funtsa hutsaldu baino ez luke egingo.

Ezaugarri bereziak dituen proiektua da, «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» proiektuak euskararen sustapenaren berezko eremutik haratago doazen alderdiak biltzen baititu. Hala, horren azpian, euskara gizarteratzeko tresna izango litzateke, eta ez soilik hizkuntza-normalizaziorako tresna, etorkinek aldi berean aurre egin ohi dieten oztopoak gainditzeko, hala nola hizkuntza- eta gizarte-oztopoak. Proiektuak balioko luke sare sozial eta komunitarioak zabaltzeko, kultura-, hezkuntza- eta elkarte-baliabide desberdinetara hurbiltzeko, tokiko ingurunearen parte izatearen sentimendua bultzatzeko, eta euskararen oinarri soziala zabaltzeko.

Horrek guztiak nabarmen zailtzen du foru sail honek sustatutako deialdietan sartzea.

proyecto «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» en el año 2026.

El presupuesto de las acciones descritas para el desarrollo de este proyecto para el año 2026 se ha concretado en un importe de OCHENTA Y CUATRO MIL QUINIENTOS EUROS (84.500,00 €).

El artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, y económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

A efectos de dar cumplimiento a la exigencia del mencionado art. 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y que justifica esta vía subvencional, ha de señalarse el indudable interés público que subyace en este proyecto.

La concesión de la subvención directa a LABAYRU FUNDAZIOA-FUNDACIÓN LABAYRU tiene perfecta cabida en lo dispuesto en el mencionado artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, ya que se trata de un proyecto caracterizado por su singularidad y excepcionalidad cuya inclusión en una de las convocatorias ordinarias gestionadas desde este Departamento no haría sino desvirtuar su propia esencia.

Se trata de un proyecto de características especiales, ya que el proyecto «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» integra aspectos que exceden del ámbito propio del fomento del euskera. Así, bajo el mismo, el euskera serviría como herramienta de inclusión social, y no solo de normalización lingüística, para superar las barreras que las personas inmigrantes suelen afrontar simultáneamente, como son las barreras lingüísticas y sociales. El proyecto serviría para ampliar las redes sociales y comunitarias, acercarse a diferentes recursos culturales, educativos y asociativos, favorecer el sentimiento de pertenencia al entorno local, y para ampliar la base social del euskera.

Todo ello dificulta de modo evidente su encaje en las distintas convocatorias promovidas desde este departamento foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Inguruabar horiek kontuan hartuta, nahikoa justifikatutzat jotzen da eta, beraz, bidezkoa da Aldundiaren dirulaguntza hori zuzenean ematea, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluaren arabera.

Atendiendo a estas circunstancias, se considera que queda suficientemente justificado y procede por tanto la concesión directa de esta subvención foral, conforme al artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Era berean, eta ekonomiaren eta gizartearen aurrerabidea lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egitea, eta horretarako, urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretan, foru-agindu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala jasotzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Asimismo, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando en ese campo. En esta línea, esta orden foral, incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Erakundeak adierazten du ez dagoela foru-dirulaguntzen onuraduna izatea ezinezkoa egiten duen ezein egoeratan, 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluak xedatzen duenaren arabera, eta halaber, adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 42. artikuluaren arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

La entidad manifiesta no encontrarse incursa en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion aurrekontu partidan, 0406 335106 45100, 2025/0066 proiektua, dirulaguntza hau emateak eragingo duen gastuari aurre egiteko beharrezkoa den esleipena dago.

En la partida presupuestaria 0406 335106 45100, proyecto 2025/0066, del presupuesto del ejercicio 2026, existe la necesaria consignación para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención.

Azkenik, dirulaguntza hau ez da estatuko laguntzatzat hartzen, EBFTko 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, ez baititu aldatzen Europar Batasunean trukaketetarako eta lehiarako baldintzak interes erkidearen kontra.

Por último, la presente subvención no se considera ayuda de Estado a tenor del artículo 107, apartado 1 del TFUE, dado que no altera las condiciones de los intercambios y de la competencia en la Unión en contra del interés común.

Dirulaguntza Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru-agindu baten bitartez ematen da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 9. artikuluak ematen dion eskumena dela bide, eta kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 12.2 artikuluak xedatutakoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten

La subvención se otorga mediante orden foral de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte en virtud de la competencia atribuida por el artículo 9 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y atendiendo a lo dispuesto en el artículo 12.2 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, en relación con la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, por el que se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

duen 169/2014 Foru Dekretuko bigarren xedapen gehigarriarekin lotuta (uztailaren 9ko 67/2026 Foru Dekretuak aldatu zuen), zeinak zehazten baititu zenbatekoa dela-eta Bizkaiko Foru Aldundiko organoek dirulaguntzak edo laguntzak emateko dituzten eskumen-mugak.

Horregatik, goraxeago aipatutako 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluan emandako eskuduntzak baliatuz, eta honako hiru testuok ezartzen dutenaren arabera, alegia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araua eta 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak onetsi duen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudia, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatu andre txit argiak proposatuta, hauxe

aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia (modificado por el Decreto Foral 67/2026, de 9 de julio) que determina los límites competenciales por razón de la cuantía de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para la disposición de gastos derivados de la concesión de subvenciones y ayudas.

Por ello, en uso de las atribuciones conferidas en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005 citada, y en virtud de lo dispuesto por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, aprobado por el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta de la Ilma. Sra. Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte,

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA.- HIRUROGEITA HAMABOST MILA EUROko (75.000,00 €) dirulaguntza zuzen bat ematea LABAYRU FUNDAZIOA-FUNDACIÓN LABAYRU entitateari (IFZ R4800525J), «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» proiektua partez finantzatzeko 2026. urtean. Dirulaguntza hori 2026ko ekitaldiaren aurrekontuko 0406 335106 45100, 2025/0066 proiektua, partidaren kargura ordainduko da.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluak ezartzen duenaren babesean ematen da dirulaguntza hau, justifikatuta baitago deialdi publiko batean sartzeko zailtasuna, foru-agindu honen azalpenezko atalean adierazten den moduan.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza bateragarria izango da beste edozein administrazio edo erakunderen (publikoa nahiz pribatua, nazionala, Europar Batasunekoa nahiz nazioartekoa) helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera

DISPONGO

PRIMERO.- Conceder una subvención directa por importe de SETENTA Y CINCO MIL EUROS (75.000,00 €) a LABAYRU FUNDAZIOA-FUNDACIÓN LABAYRU (NIF R4800525J) para la financiación parcial del proyecto «Euskal kultura kulturartekotasun testuinguruan» en el año 2026. Esta subvención se imputará a la partida presupuestaria 0406 335106 45100, proyecto 2025/0066, del presupuesto del ejercicio 2026.

Esta subvención se otorga al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, al quedar justificado, tal como queda recogido en la parte expositiva de esta orden foral, la dificultad de su inclusión en una convocatoria pública.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la presente subvención foral será compatible con otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras administraciones, entes públicos o privados,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

edo baliabiderekin, baina, hori gertatuz gero, dagokion onuradunak zuzenbidez onargarria den edozein bide erabiliz dirulaguntza publiko horren berri eman beharko lioke honako hau eman duen erakundeari ahalik eta arinen.

Dirulaguntza hau ez da estatuko laguntzatzat hartzen, EBFTko 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, ez baititu aldatzen Europar Batasunean trukaketetarako eta lehiarako baldintzak interes erkidearen kontra.

Dirulaguntzen zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntza, sarrera edo baliabideekin batera (berezko finantzaketa barne), ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

BIGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluak ezartzen duen dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptua betez emango dira dirulaguntza hauek. Ondorio horietarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak inolako zalantzarik gabe, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Zergak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

HIRUGARRENA.- Foru-agindu hau jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da eta Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko Euskara Zerbitzua izapideak egiten hasiko da Ogasun eta Finantzen Foru Sailarekin, dirulaguntza ordainketa bakar baten abonatzeko; horretarako, ez zaio ezein bermerik eskatuko onuradunari, zergatik eta ez delako arriskurik aurreikusten hartutako betebeharrak ez betetzeko.

estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que ello obste la obligación de la respectiva beneficiaria de comunicar por cualquier medio probatorio aceptable en derecho tal subvención pública, de producirse, a la entidad concedente de la presente a la mayor brevedad posible.

La presente subvención no se considera ayuda de Estado a tenor del artículo 107, apartado 1 del TFUE, dado que no altera las condiciones de los intercambios y de la competencia en la Unión en contra del interés común.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

SEGUNDO.- La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

TERCERO.- Si en el plazo de diez días hábiles tras la notificación de la presente orden foral la entidad beneficiara no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte procederá a tramitar su abono en un solo pago ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gastu-konpromisoa hartu, betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da entitate onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, eta ez dela dirua itzultzeko ebazpenen baten ondorioz zordun.

Previo a la disposición del gasto, al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Eginiko egiaztapenen ondorioz erakunde onuradunak aipaturiko betebeharrak ez dituela betetzen antzemanez gero, hamar (10) eguneko epean egoera erregularizatzeko eskatuko zaio, eta, hori egin ezean, emandako dirulaguntzarako eskubidea galdu egingo duela adieraziko zaio administrazio-ebazpen baten bitartez.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la beneficiaria incumple cualquiera de tales obligaciones, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida, previa la correspondiente resolución administrativa.

LAUGARRENA.- Foru-agindu honen bidez emandako dirulaguntzaren onuraduna den erakundeak honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

CUARTO.- La entidad beneficiaria de la subvención concedida por la presente orden foral se compromete a:

a) Dirulaguntza honen xede den proiektua egitea.

a) Realizar el proyecto objeto de la presente subvención.

b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru-arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduko 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunak proiektuaren justifikazioa egingo du justifikazio-kontua aurkeztuz; justifikazio-kontu hori aurkeztu beharko du justifikatutako ekitaldiaren hurrengo urteko lehen hiruhilekoan, eta informazio hau jaso beharko du bertan:

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación de las actividades realizadas por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, durante el primer trimestre del año siguiente al ejercicio justificado, de una cuenta justificativa que deberá contener la información que se indica a continuación:

1. Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

1. Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2. Eginiko jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomiko bat, honako alderdi hauek jasotzen dituena:

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que contendrá:

a) Eginiko jarduerei egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria. Bete beharreko gastu eta diru-sarreren egoerak 1. inprimakian proposatutako ereduaren egiturari jarraitu beharko dio.

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del modelo que se propone en el formulario 1.

b) Aurreko a) atalean adierazitako gastuen egoera osatzen duen kontzeptu bakoitzarentzat, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta bertan adieraziko dira: hartzekodunaren identifikazioa, dokumentuaren

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, 2. a), b), c) eta d) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta. Justifikazioa egiteko epearen muga-egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

emisión y pago, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 2. a), b), c) y d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Diru-sarreren egoera osatzen duen partida bakoitzarentzat, aurreko a) atalean adierazitako diru-sarreren (dirulaguntzak nahiz bestelako diru-sarrerak) zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta, bertan, zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira, 3. a) eta b) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 3 a) y b).

d) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpen bat, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak aurreko c) letran berariaz adierazitakoak direla.

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren aurreko b) letran adierazten diren kostu orokorrak edota zeharkako kostuak banatzeko.

e) Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) Baldin dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen berezko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopurua baino, gutxienez ere hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez badago behar beste entitate ondasun edo zerbitzuok hornitu edo egiten dituenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan azaldu behar dira, eta, haien artean aukeratzeko, eragimen- eta ekonomia- irizpideen arabera jokatuko da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

f) Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público, para el contrato menor, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Fakturen eta ordainketak egiaztatzen dituzten dokumentuen aurkezpena. Horiek sailkatuko dira b) paragrafoaren araberako zerrendaren hurrenkera berberean.

g) Aportación de las facturas y de los documentos que soporten los pagos, clasificadas en el mismo orden que el propuesto en la lista elaborada conforme al apartado b).

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BOSGARRENA.- Nolanahi ere, foru-dirulaguntza honen erakunde onuradunak derrigorrez bete beharko du Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa.

Era berean, dirulaguntza publiko hau jasoz gero, erakunde onuradunak aipaturiko foru-arauaren 33. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa bete beharko du.

5/2005 Foru Arauko 27. artikuluak xedatu legez, entitate onuradunak azpikontratatzeko ezarritako baldintza eta debekuen erregimena bete beharko du. Lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren % 90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

Diruz lagundutako jarduera osorik edo zati batean onuradunarekin lotutako pertsonekin edo erakundeekin gauzatzea hitzartzen denean, beharrezkoa izango da:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea. Horretarako, onuradunak gutxienez ere hiru hornitzaileri eskatu beharko die eskaintza, aldez aurretik, non eta azpikontratatutako jardueren ezaugarri bereziak direla-eta ez dagoen merkatuan behar beste entitate halako jarduerak eskaintzen dituenik, edo non eta gastua ez den egin dirulaguntza eskatu aurretik.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena lortzea.

Dirulaguntza honen onuradunak jakinarazi beharko du helburu bererako, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana.

SEIGARRENA.- Erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa hartzen du, paper, material, kartel eta hedapenerako bestelako euskarrietan Foru Aldundiak proiektu honi emandako babesa agertzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra eta «euskararen txantxangorria»ren irudia sartuz.

QUINTO.- En todo caso, la entidad beneficiaria de la presente subvención foral queda obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En idéntico sentido, la concesión de la presente subvención pública conlleva que la entidad beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral.

A los efectos del artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, la entidad beneficiaria queda sometida al régimen de requisitos y prohibiciones previstos en materia de subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

Cuando se concierte la ejecución total o parcial de la actividad subvencionada con personas o entidades vinculadas con la persona beneficiaria, será necesario:

1.ª Que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado para lo que será preciso que la persona beneficiaria solicite, con carácter previo, como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de las actividades subcontratadas no exista en el mercado suficiente número de entidades que las presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

2.ª Que se obtenga la previa autorización del órgano concedente.

Igualmente, la beneficiaria de esta subvención queda obligada a comunicar la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

SEXTO.- La entidad beneficiaria se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia. Deberá incluir en su papelería, material, carteles y cualquier otro medio de difusión el patrocinio foral de este proyecto, y, para ello, insertará el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia y la imagen del «euskararen txantxangorria».

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 2EUL-K3VM-R24J-15FX
